

noaua



ALDARRIKAPENEK ETA OSPAKIZUNEK BAT EGINGO DUTE MARTXOAREN 8AN

Udalak, Kafe Tertuliak eta Emakumeen Etxeko talde sustatzaileak elkarlanean antolatu dute egitaraua / 12-13

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Oriak gainezka egin zuen aste hasierako euriteengatik / 03



ERRIGORA

Errigoraren kanpaina berriko produktuak eskatzeko aukera / 09



NOAUA

Traktoreak errepidera itzuliko dira berriro ostiral honetan / 14



NOAUA

Aztarrikak larunbat honetan ospatuko du Gazte Eguna / 22



Alsazia eta Oihan beltza

IRTEERA 2024ko maiatza

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

nooaa

jarraitu gure sare sozialak



www.nooaa.eus

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 13, ASTEAZKENA - POTXOENEAN

1. deialdia 17.30 / 2. deialdia 18.00

GAI-ZERRENDA:

- 1) 2023ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2024ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

nooaa



Zubietako sarbidea, urpean

Aste hasierako euri-jasen eragina berehala igarri zen Oria ibaiko erribera osoan.

Astearte goizean, Zubietan, Santuenean, Txokoalden zein Aginaga aldean, urak gainezka egin zuen ohiko tokietan: Zubietako Aliri zubiaren bueltan, bidearen zati bat urpean utzi zuen ibaiak. Santuenean, Aialde Berri sagardotegian atarian zuten ura. Txokoalden, Altzonazko zubi-irantz indarrez eta nabarmen hazita zihoan erria.



Zubietan, Aliriko zubiko sarbidea itxi egin zuten astearte goizean.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Otsailaren 29tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Martxoaren 7an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

1964an jaiotakoek bazkaria ekainaren 1ean izango da

Ekainaren 1ean bilduko dira bazkaritarako. Era honetan, 60. urtemuga ospatuko dute. Non elkartuko diren, informazio hori ez dugu jaso oraindik. Dena den, interesa duenak telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 647 458 997 (Mari Jose).

1952an jaiotakoek bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabalgogojatetxean batuko dira. Otu-runtza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa

“Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa” ikastaroa antolatu du Alkartasunak martxoaren 8rako, 15:30-18:30 artean Potxoenean. “Josu Osa adituarekin 8 txerto mota baino gehiago ikasiko ditugu”, iragarri dute. Izen-ematea: 943 361 114 / alkartasuna.eus

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Elkarrekin

Nola irudikatzen zenuen zure bizitza orain dela 10 urte? Ni ozta-ozta adinez nagusia nintzen. Ustez, heldutasunerantz lehen atearen heldulekuari tiratzen hasitakoa. Unibertsitate ikasketak aukeratu berri eta lehen ikasturteari ekinda nengoen ordurako. Dagoeneko, esaten hasiak ziren Energia Berriztagarrien alorrean nahikoa lan izango genuela. Eta gizartearen logikarekin bat zetorren erabaki ziurra zela sinetsarazi nahi izan ziguten edo akaso, nintzen. Argiako BTN bideo-podcasten duela gutxi zioten bezala, ustezko promesak ginen bakoitza bere testuinguruan.

Baina guranako izendapen edo irakurketa gehienek, berarekin dakartzate espektatibak. Norberarenak ere bai, noski, baina batez ere inguruan sortu eta kasik aipatu ere egin gabe su txikian erregosten eta elikatzen direnak. Hala nola, egunean egunekoari erantzunez bidean aurrera egiten diharduzun bitartean, ingurukoek zuzan proiektatzen dituzten nahi horiek denak hortxe daude. Eta batzuetan, esleitzen zaigun ustezko arrakastarako potentzialitate horri lotuta, aurkitu daiteke exijentziaren zama handi bat ere.

Aitortu beharra dut, nire kasuan, presio edo bideratze saiakera hori, hasieran nabarmendu nuela batez ere. Zertarako egin Ingurumen Zientzien Gradua, Ingeniaritza batek ate gehiago zabalduko badizkizu? Hobe zientzia ikasketak



"Gaur egun, nire esfortzuak gizartearen eraldaketarako baliatu ditzakedala ikasi dut".

aukeratu, aurrerago ere idazketa eta marrazketarako "pasioak" garatzeko aukera izango duzu edozein unetan ere... Eta tira, egingdako bidea erabaki propioz hautatuagatik, tarteka saiatzen naiz irudikatzen nire beste ibilbide posible horien nolakotasuna. Baina gaurko puntua, ez da hori ordea.

Egun, sinesten dudako proiektu ezberdinetan hartzen dut parte. Lanean, herrian, lagunartean... Prozesu kolektiboen eta ingu-

"JAKINTZAK ETA ESPERIENTZIAK INGURUKOekin PARTEKATU ETA KONFIANTZAZKO SAREAK SORTZEKO AUKERA UGARI DITUGULA ERAKUTSI DIT DENBORAK"

ruko komunitateen egituratzean sinesten dut. Eta honaino nola heldu naizen oso argi ez dudan arren, ekimen horiengan ari naiz jartzen nire energiaren zati handi bat. Hasiera batean, nire burua instalazio handiak egin eta ahalik eta energia berriztagarri gehiena sortzeko helburua duten enpresaren batean irudikatuagatik, egun, nire esfortzuak gizartearen eraldaketarako baliatu ditzakedala ikasi dut. Jakintzak eta esperientziak ingurukoekin partekatu eta konfiantzazko sareak sortzeko aukera ugari ditugula erakutsi dit denborak. Bizitza bizigarriak eta jasagarriak eraikitze-kotan, elkarrekin eta elkarrentzat jardun behar dugula batera, ahalik eta espazio eta pertsona anitzekin inguratuaz. Eta pentsatu nahi dut, nahiz eta bidea beste norantza batean hartu izan, antzerako egoera batean egongo nintzatekeela noizbait ere.

'Treba gurasoak' ikastaroko hitzorduak

Iragan asteko saioaren ondotik, egitasmo horren baitan beste bi saio antolatu dituzte martxorako Gaztelekuak, Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak, Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak:

- Martxoak 14, 17:30 Potxoenen: "Pornografia gaur eguneko sexu-heziketa ote?", Eider Goibururekin.
- Martxoak 21, 18:00 Potxoenen: "Komunikazioa familian. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta komunikazioa hobetzen", Leyre Canorekin.

Aitzagaren 30. urtemuga jaialdirako sarrerak salgai

Ekainaren 1erako egun osoko jaialdia iragarri du Aitzagak.

Ekainak 1, larunbata

- 13:00 Ekitaldia.
- 13:30 Fanfarrikant Brass Band.
- 14:00 Herri-bazkaria.
- 18:00 Fanfarrikant Brass Band.
- 19:30 Gunearen irekiera Dj Jotaxorekin.
- 22:00 Kontzertuak: Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotaxo.

Afaltzeko aukera ere izango dela iragarri dute.

Sarrerak, eskuragarri

Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte usurbilkultura.eus plataforman.



Delirium Tremens izango da zuzenean arituko den taldeetako bat.

EAJ: "Trantsizio ekosoziala lantzeko prozesuak erakutsi du gune baliotsua dela ideien trukerako"

Alderdi jeltzaleak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu 'Usurbil Bizi'-ren hurrengo saioetan parte hartzera, "udalerrri jasangarriago eta bidezkoago bat" eraiki ahal izateko.

'Usurbil Bizi. Lau misio, herri bat' ekimenaren baitan kokatzen da trantsizio ekosoziala lantzeko prozesua. Xabier Otxoa Usurbilgo EAJ-PNVko bozeramaileak positibotzat eta aberasgarritzat jo du mar-txan den lanketa.

Prentsa-ohar baten bidez, Xabier Otxoak prozesu honen garrantzia nabarmendu du: "Trantsizio ekosoziala, aurre egin behar diogun krisi klimatiko eta ekologikoaren aurrean premiazko beharra izateaz gain, guztiontzako etorkizun jasangarriagoa eta bidezkoagoa eraikitze-ko aukera ere bada. 'Usurbil Bizi. Lau misio, herri bat' da herritarren parte-hartzeak eta erabakiak elkarrekin hartzeak helburu horiek lortzeko aha-lerin kolektiboak nola aberastu eta indartu ditzaketen erakusten duen adibidea".

Usurbilgo EAJ-PNVren esanetan, "partaidetza-prozesuak erakutsi du gune baliotsua dela entzute aktiborako eta ideien trukerako, eta aukera eman die hainbat pertsonari eta gizarte-eragileri beren ikuspegiak partekatze-ko eta etorkizuneko erronka handinahi baina egingarriak diseinatzen laguntzeko". Orain arte, lau saio egin dira baina etorkizuneko gehiago egingo direla aurreikusi da, "eta horrek azpimarratzen du komunitateak etengabeko konpromisoa duela proiektu eraldatzaile horrekin".

Usurbilgo alderdi jeltzaleak "herritar guztiak gonbidatzen ditu 'Usurbil Bizi'-ren hurrengo saioetan parte hartzera, bere babesa berretsiz eta Usurbil jasangarriago eta bidezkoago baten erai-



Usurbilgo EAJ-PNVk positibotzat jo du 'Usurbil Bizi' trantsizio ekosozialerantz prozesu parte-hartzailea. ARGAZKIA: EAJ-PNV

kuntzan lankidetzeta eta parte-hartze aktiboaren garrantzia azpimarratuz".

"IKUSPEGIAK PARTEKATZEKO ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK DISEINATZEN LAGUNTZEKO AUKERA EMATEN DU"

Prozesu eraldatzailea

Trantsizio ekosoziala prozesu eraldatzailea da, eta "gure gizartea eredu jasangarriago eta bidezkoagoetara bideratu nahi du, giza ongizatearen eta planetaren osasunaren arteko interdependentsian oinarrituta". Eusko Alderdi Jeltzalearen hitzetan, "ikuspegi horrek al-daketa sakonak eskatzen ditu bizi, lan egin eta naturarekin nahiz gure artean harremanak izateko moduan, iraunkortasuna, ekitatea eta erresilientzia lehenetsiz ingurumen- eta gizarte-erronken aurrean".

Airearen kalitatea FITOarakatzen

UDARREGI IKASTOLAKO DBH 3-KO IKASLEAK

Kaixo, usurbildar: Udarregi ikastolako DBH3-ko ikasleak gara, eta gure proiektua aurkeztu nahi dizuegu: "Airearen kalitatea FITOarakatzen".

Proiektu hau herritarren zientzia moduko ikerketa da,

eta Iker Aranjuelo Mitxelena ikertzaile profesionalaren laguntzarekin egiten ari gara, Elhuyar Fundazioaren bitartez. Ikerrek beste herri batzuetan ere ikerketa hau egin du, eta pixkanaka Euskal Herriko airearen kalitatearen mapa eratzen ari da.

Iker ikastolara bisitan etorri zitzaigun, aurkezpen bat egin eta hainbat landare ekarri zizkigun, erga-

landareak. Taldeka landareak jaso, eta Usurbilgo leku desberdinetan kokatu ditugu hirunaka lorontzi txiki batzuetan. Taldeak bi egunetik behin joaten gara bertako airea gailu batzuen bitartez aztertzereta eta landareak ureztatzereta. Landareak tokiko metal astunak metatzen joango dira eta pare bat hilabete igaro ondoren, landare

hauek jaso, laginak hartu eta Mutiloako IdAB laborategira eramango ditugu aztertzereta.

Proiektu hau era egokian aurrera eraman ahal izateko landareren bat ikusiz gero ez ukitzea eskertuko genizueke, bestela datu bilketa ez litzateke fidagarria izango eta ezingo genuke proiektua ongi burutu.

Mila esker.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, beheka 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus



Lasarte-Oriako Udala kirol gune berri bat eraikitzen ari da Atsobakarren. ARGAZKIA: LASARTE-ORIAKO UDALA

PSE-EEK Atsobakarreko kirol partzela erabiltzeko aurreikuspen falta deitoratu du

Petri Romero zinegotzi sozialistaren esanetan, "aurreikuspenik ez izateaz gain", ez zaio Lasarte-Oriako Udalari partzela hori baliatzeko aukerarik eman.

Atsobakar eremua Urbil merkataritza-gunearen parean dago. Lasarte-Oriako Udala kirol-gune bat eraikitzen ari da bertan, eta ekipamendu horiek Usurbilgo bizilagunentzat ere onuragarri izango direla dio Petri Romerok. Usurbilgo PSE-EEK deitoratu egin du EH Bilduren

governuak Atsobakarreko lursailerako duen aurreikuspen falta. Gaur egun, eremu horren aldameneko lurzatian, "Lasarte-Oriako Udala proiektu estrategiko bat eraikitzen ari da Buruntzaldeko kirol mankomunitatearentzat, eta horren parte da Usurbil".

Futbol eta errugbi zelai bat

Urbil merkataritza-gunearen parean dagoen azalera Usurbilgo Udalarena da eta lur zati hori ere kirol erabilerarako izendatuta dago. "EHBilduren udal gobernuak ordea, ez du bertan ezer eraikitzeko asmorik", eta horrek PSE-EEren kezua eragin du.

Lasarte-Oriako Udalaren egitasmoa aldiz, hasi da itxura hartzen. Futbol zein errugbi zelai berri bat eraikitzen

ari dira, "Ohorezko Mailako kategorian lehiatzeko modukoa. Gainera, atletismo pista homologatu berria eraikiko da, sei kalerekin eta 400 metroko eraztunarekin. Euskadiko Txapelketa absolutuak jokatu ahal izango dira bertan". PSE-EEKo zinegotzi usurbildarraren esanetan, "obra horiek sei milioi eurotik gorako kostua izango dute, eta aurtengo irailean amaitzea aurreikusten da".

"Ezustekoa hartu dut"

Petri Romero Usurbilgo sozialisten bozeramaileak Atsobakar udal-partzelaren etorkizunari buruz galdetu du Usurbilgo Udaletxean. "Ezustekoa hartu dut EHBilduk gidatzen duen udal gobernuak lursail horretarako aurreikuspenik ez duela jakin dudanean, partzela txikia dela argudiatuz". Usurbilek eskualdeko proiektu estrategiko honekin bat egiteko aukera galdu dela uste du Romerok. Besteak beste, usurbildar lursail hori "Lasarte-Oriaren alde lagata, etorkizuneko kirol-instalazioen harmailak handitu ahal izango zirelako".

"EH BILDUK EZ DU AURREIKUSPENIK LUR SAIL HORRETAN, PARTZELA TXIKIA OMEN DELAKO"

"Ekonomiaren aldeko apustuak azpiegitura lehiakorrek eskatzen ditu"

Gipuzkoako Foru Aldundiak amaitu ditu N-1 errepidean Allerru gainean biribilgune bat eraikitzeko lanak.

Allerrun Merca-Bugatti, Eskusaitzeta, Zubietako herriko eta Zubietako garraio-zentroetako fluxuak elkartzen dira, baita

Lasarte-Oriako trafikoaren zati bat ere. Eider Mendoza diputatu nagusiak eta Maria Ubarretxena Bide Azpiegituretako diputatuak 2022ko azaroan eraikitzen hasi ziren azpiegitura berria bisitatu zuten astelehenean.

Eider Mendozak N-1 errepideko lotune berriaren garrantzia nabarmendu zuen, "Lasarte-Oriako industrialdeetara, Zubietako ingurumen-zentroa edota Eskusaitzetako industria-parkera sartzeko bidea erraztuko duelako". Bertan, "Naturklima erreferentzia-zentroa eta Mubil mugikortasun berriaren poloa daude, gaur egun eraikitzen ari direnak".



45 metroko luzera duten bi zubi berri eraiki dituzte Allerrun.



Hondakin-urak ponpatzeko bi estazio eraiki dira, bat Aginagan eta bestea Txokoalden. ARGAZKIA: URA.

Aginaga eta Txokoaldeko hondakin-urak ez dira Oria ibaira isuriko

URA Ura Garapen Agentziak zuzendu duen saneamendu-lanari esker, Aginaga eta Txokoaldeko auzoko hondakin-urak kolektore nagusira bideratuko dira, Oria ibaira isuri ordez.

Aginaga eta Txokoaldeko herri-guneetako isuririk Oria ibaira bideratzen ziren orain arte. Hondakin horiek modu egokian biltzeko, kolektore nagusiarekin bat egiteko lotunea eraiki da, 6.600 metroko luzerakoa. Horretaz gain, "eremu horretan sakabanatuta dauden etxebizitzetako urak biltzeko aukera ematen duten bigarren mailako adarrak ere eraiki dira", Uraren Euskal Agentziak aditzera eman duenez.

Kolektore horiek Aginagako behealdetik abiatzen dira, "Txinorta izenekoetik, eta Usurbil-Lasarte Oria-Hernaniko hodi biltzaile nagusiarekin bat egiten dute, Usurbilgo Zumartegi poligonoan, Osinaldeko hondakin-urak ponpatzeko estazioaren parean".

Hondakin-urak ponpatzeko bi estazio berri eraiki dira

Kolektore horiek euri-urak hondakin-uretatik bereizteko moduan eraiki dira, hodi biltzailera bideratu aurretik. Era berean, obrek barne hartu dute hondakin-urak ponpatzeko bi estazio berri eraikitzea (Txokoalde eta Aginaga HUPeak). Antzeko ezauzgarri arkitektonikoak dituzte biek.

"UR ZIKINEK ZUMARTEGIN DAGOEN HODI NAGUSIAREKIN BAT EGINGO DUTE"

Mantentze-lanak eta ustiapena

Saneamendu-azpiegitura berriaren mantentzea eta ustiapena Usurbilgo Udalaren eta Añarbeko Uren artean hitzartu da. Horren arabera, "Añarbe arduratuko da ponpake-ta-estazio berriez eta kolektore nagusiez, eta Udalak hartuko du bere gain bigarren mailako sareen kudeaketa", URA-k aditzera eman duenez.

6 milioiko inbertsioa

Obrak egiteko 27 hilabete behar izan dira, eta 6 milioi euroko inbertsioa. Uraren Euskal Agentziak %60an finantzatu du eta gainontzeko %40a Añarbeko Urak hartu du bere gain.

Palestina eta Martxoak 8, otsaileko osoko bilkuran

Otsaila amaierarekin batera, udalbatzaren osoko bilkura ate joka dugu. Hilabete honi dagokion ohiko saioa lau urtero gertatzen den moduan, otsailak izaten duen egun erantsian izango da oraingoan; hilaren 29an.

Hitzordu horri begira, Usurbilgo Udalak helarazi berri du udal ordezkariak ahotan hartuko duten gaien zerrenda. Oraingoan, Palestinari eta bidean datorkigun Martxoaren 8ari lotutako mozio bana bozkatuko dute. Horrez gain, hirigintza arloari lotutako beste bi hizpide ere izango dituzte: Orbediko presa eta Txokoaldeko trenbideko lanak.

Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga ordaintzeko garaia ate joka

Martxoan sartzearekin batera, trakzio mekanikozko ibilgailuei lotutako zerga ordaintzeko epea irekiko du Udalak, apirilaren 15era arte. Momentuz, zerga honen errolda onetsi eta udal Kontuhartzaitetzan jendaurrean ikusgai jarri dela ohartarazi da, otsailaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez.

Hauteskunde giroan

Agerraldi bidez, Iñigo Urkullu lehendakariak apirilaren 21erako iragarri ditu egunotan, Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak. Honenbestez, egun horretan izango da hautetsontziekin izango dugun lehenengo hitzordua. Bigarrena, ekainaren 9an; izan ere Europako Parlamenturako hauteskundeak izango dira.



Aitzaga Kultur Elkarteko kideak, bilgunearen 30. urtemugako kartela eskuartean dutela.

30 urteko hegaldia, herriarekin ospatzera

Ekainean 30 urte beteko dituen Aitzaga Kultur Elkartea ospakizun betean da urtarrilaz geroztik. Aipatu bilgunetik, hamarkada hauen ibilbideari gorazarre egin eta indarberritzeko baliatu nahi dute urtemuga hau.

Hiru hamarkada bete dituen une honetara, indarberritzeko prozesu betean heldu da Aitzaga Kultur Elkartea. "Belunaldi berriok hartu dugu batuta. Aitzaga gaztetzen ari da", nabarmendu dute. Ez hori bakarrik. "Kultur elkartea berpiztu da, espazio fisikoa ere txukundu da". Halere, ohararazi dutenez, "ezin da ahaztu Aitzagaren egoera juridikoa ere ez dela aldatu. Epai bat emana dago eta horren exekuzio bat falta da urte askotan luzatzen ari dena".

Bazkidetzeko deia

Edozein kasutan, elkarte gastronomiko batetik haratagoko eskaintza duela nabarmenduta, "biziberritze honetan ere kide berriak ere gonbidatzen ditugu bazkidetza egitera". Horren harira kanpaina

egitekoak dira. "30 urtezhemen jende askok, bazkide asko denbora asko eman du proiektuaren alde. Orain egokitzen zaigu belunaldi berriok parte hartu eta Aitzagak eskaintzen duena baliatzea eta egitasmoari atxikitzea. Horren baitan, deialdia egin nahi genuke parte hartzera eta belunaldi gazteei eta ez hain gazteei bazkidetzera".

Berrindartzeko erronka

Ildo horretan sakondu nahi dute hilabeteotako ekimenekin. "30. urtemugako ospakizun hori aitzakiatzat hartuta, Aitzaga berrindartu nahi dugu. Ezker abertzaleko komunitatearen espazioa dela jakinik, erreferentzia horri garrantzia ematea eta etorkizunera begira bizirik, erreferente izanez segitzea".

Hileroko dinamika

Antolatu duten eskaintza, pixkanaka joango dira ezagutarazten. Dagoeneko ekainaren 1eko jaialdiko egitaraua plazaratu dute, sarrerak salgai jarri ere bai. Ordura arte, ordea, hileroko ekimenak antolatuko dituzte eta hitzorduok pixkanaka joango dira iragartzen. Momentuz, orain arte, Amebaren kontzertu akustikoa, barrikotea edota Aitzagaren historiari buruzko solasaldia

"30 URTEZ AITZAGAK BERMATUTAKO BALOREAK TRANSMITITUKO DIRA"

egin dute. Orain, hilabetez luzatuko den Martxo Gastronomia abiaraziko dute ostegun honetatik aurrera; sukaldaritza ikastaroa Haritz Arruti herrikidearekin. Aurrerago, Irulegiko eskuari buruzko hitzaldia eta irteera bat ere egitekoak dira, besteak beste. Gai ezberdinei tarrea egin nahi izan diete. Eskaintza osoak hiru hamarkada hauetan aipatu kultur elkartetik sustatu diren baloreekin bat egingo dutela nabarmendu diote NOAA!ri. Aitzaga "herritarra, euskalduna, ezkertiararekin". Alegia, "30 urtez Aitzaga transmititzen eta bermatzen aritu den balore horiek transmitituko dira". Baita, noski, ekainaren 1eko jaialdian ere. "Gure oinarriekin bat egiten duen jaialdia izango da".

Aitzagakide ororentzat

Izan ere, sei hilabeteotako dinamika, gogoangarria izango den jaialdi handi batekin borobilduko du Aitzagak ekainaren 1ean, ateak ireki zituela 30 urte beteko diren bezperatan. Egurditik goizaldera, ia 24 orduko ospakizun eguna iragarri dute. Urtemugako ekitaldiarekin ekingo diote. "Urte hauetan guztietan Aitzagaren parte izan direnak

nahiz inguruan ibili direnei, herritar guztiei egun hori gurekin ospatzera animatzen ditugu". Hain zuzen, "eguna bera izango da herriari, bazkideoi, Aitzagako kide izan direnei eta izango direnei eskainitako omenalditxo eta ospakizun jaialdi bat". Hala hasi nahi dute, hiru hamarkada hauetako ibilaldiari gorazarre egingo dion ekitaldi eta herri-bazkariarekin. Otordua- ren aurretik eta haren ostean, herrikide belaunaldiak batu dituen Fanfarrikant Brass Band entzuteko aukera izango dugu estreinakoz.

Usurbildik haratagokoei ere gonbita

Eguna borobiltzeko, usurbildarrei eta herritik haratagoko euskal herritarrei zuzenduriko kontzertu gaua iragarri dute. Izan ere, "ulertu behar dugu Aitzaga ez dela Usurbilera mugaturiko proiektu bat soilik, komunitate handiago baten parte da. Euskal Herrian bere txokoa, espazioa eta garrantzia izan du. Horregatik, ekainaren 1ekoa izango da, 30 urteok ospatzeko jaialdi bat, denon artean ondo pasatzeko egun polit bat", antolatzaileen esanetan. Ez dute ahazterik nahi, sei hilabeteotako ekimenak bideratzeko jasotzen ari diren babesa eta bidelagunak. "Halako dinamika bat aurrera ateratzea lan asko da eta ikusten ari gara Udalaren eta herriaren erantzuna oso ona izaten ari dela", nabarmendu eta eskertu nahi izan dute Aitzaga Kultur Elkartetik.

"30 urtez hegaldian"

Segidan duzue, orain hasi eta ekainera arte, 30. urtemugaren harira Aitzaga Kultur Elkarteak

antolatu dituen ekimenen berri. Hitzordu gehiago ere izango dira, baina aurrerago jakinaraziko dituzte. Momentuz, jada izen-emate epea itxia duen sukaldaritza ikastaroa abiatuko dute ostegunean. Bestalde, ekainaren 1eko jaialdirako sarrerak salgai dituzue jada usurbilkultura.eus plataforman eta ostiraletik baita Aitzaga tabernan ere.

Otsailak 29 / Martxoak 7, 14, 21

18:00-21:00 Martxoan Gastro- nomikoa Aitzaga elkarte- an. Bideratzailea: Elketa jatetxeko sukaldari Haritz Arruti. Izan-ematea: itxita.

Ekainera arte

Hilero ekimenak.

Ekainak 1, larunbata

13:00 Ekitaldia.
13:30 - 14:00 Fanfarrikant Brass Band.
14:00 Herri-bazkaria Askatasuna plazan.
18:00 Fanfarrikant Brass Band.
19:30 Gunearen irekiera Dj Jotatxorekin.
20:00-23:00 Bokatak afaltzeko aukera izango da.
22:00 Kontzertuak: Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotatxo.
06:00 Gunearen itxiera.
Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta Aitzaga tabernan (martxoaren 1etik aurrera) salgai. Prezioa: herri-bazkarikoak 15 eurotan (egunean bertan 18 eurotan) eta otordurako zein kontzertu guerako txartelak 30 eurotan.



Eskaerak martxoaren 13ra arte egin ahalko dira.

"Eutsi gureari!", Errigoraren kanpaina berrirako deia

Oraingo honetan, oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak eskuratu ahalko dira.

"Badator nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura!", Errigoratik egitasmoaren urte garai honetako kanpaina. "Euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan". Eskabideak otsailaren 25etik martxoaren 13ra bideratu ahalko dira online errigora.eus bidez edota NOAUA! Kultur Elkarte- an.

"Eutsi diezaiozun bada gureari, egin dugun, egiten ari garen eta egiteko dugun biderei. Gure zailtasun, ahal eta ametsen biderei", deitu dute Errigoratik. Gogorazi dute- nez, "gure ibilbide luze-labur- rarak hori erakutsi digu. 10 urte bete-bete hauetan bestelako bideei ekiteko gaitasuna du- gula. Hamargarrenez, ekoiz- learen jatorrizko prezioan, euskaraz etiketatuta eta au- zolanean ehunka herritan gauzatu eta haziz joan den bestelako ekoizle-kontsumi-

tzailen hartu-eman hauxe bera da erakusle argia".

Egutegia

- Otsailak 25-martxoak 13: eskabideak errigora.eus bidez edo NOAUA! Kultur Elkarte- an.
- Apirila-maiatza: eskatutako produktuen bilketa.
- Ordainketa: online eginez gero bi zatitan ordaintzeko aukera edo eskudirutan dena batera produktuak jasotzerakoan.

Produktuen eskaintza

- Ardoa: bereziak, gorenak.
- Oliba-olio birjina estra.
- Zainzuriak, orburuak, kardua, barazkiak, tomateak, piperrak, arrendolak, txitxirioak, baba- runak, potxak, menestra...
- Pastak.
- Lekaleak.

Informazio gehiago: errigora.eus

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraitz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra

693 059 392
 uraitz@uraitz.com USURBIL



Palestinaren aldeko elkartasun aktiborako deia egin du herritar talde batek.

Palestinaren aldeko elkartasun asteburua

Elkartasun aktiborako astea deitu dute Gernika-Palestina eta Yala Nafarroa plataformek Euskal Herrian. Usurbilgo herritar talde batek ere ekimenekin bat egin eta mobilizatorako asteburua iragarri du: elkartasun mahaia eta bi orduko elkarretaratzea.

Lehenagotik urte luzez, baina urriaren 7az geroztik Israelek Palestinaren aurkako erasoaldia nabarmen gogortu ostean, gogoan izango duzue Gernika-Palestina herritar taldea osatu zutela eta hilabete hartan bertan, mobilizazioak deitzeari ekin ziotela; Donostian manifestazio nazionala edota handik hilabetera, azaroaren 7an, herriz herri elkarretaratzeak. Plataforma honek hainbat sindikatu (LAB, ELA, CCOO, UGT, Steilas, CGT eta Etxalde) eta Ikama ikasle mugimenduekin batera, elkartasun aktiborako astea deitu dute herriz herri. "Yala Nafarroa" kolektiboa ere deialdi honetara batu da, eta guztiek, "2 ordu Palestinarekin" elkarretaratzeak deitu dituzte astebururako, tokian tokiko kolektiboekin lankidetzan.

Ekimenekin, "ekintza komunitarioa sustatu nahi dute Gazan, kolektibo palestinaren bidez". Horretarako, herritarrei diru ekarpenak egitera deitu diete. Bestalde, Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu nazioarteko epaileen aurrera eramatea sustatzeko ekimena ere izango da honako hau.

Bi orduko elkarretaratzea

Deialdiokin bat egin du baita Usurbilgo herritar talde batek ere eta zenbait ekimen deitu ditu otsailaren 29tik martxoaren 2ra. Batetik, elkartasun mahaia jarriko dute otsailaren 29tik martxoaren 2ra frontoi inguruan, Palestinaren aldeko diru bilketa bideratzeko baita balkoieta jartzeko palestinatar banderolak eskuratzeko ere. Modu horretan, Palestinak

bizi duen egoera ikusarazten laguntzea nahi da. Martxoaren 2an, bestalde, "bi ordu Palestinarekin" elkarretaratzea egingo da Mikel Laboa plazan, herri eragile ezberdinekin lankidetzan.

Adierazpena

Honax elkartasun asteburu horri begira, Usurbilgo herritar talde batek helarazitako adierazpena:

**"BI ORDU
PALESTINAREKIN
ELKARRETARATZEA
IZANGO DA,
HERRIKO HAINBAT
TALDEREKIN"**

"Palestinaren aldeko elkartasun aktiborako deia Usurbilgo herritarrei! "Gernika Palestina" eta "Yala Nafarroa" plataformek luzatutako deialdiarekin bat egin dugu Usurbilen. Zertarako? Netanyahu nazioarteko epaileen aurrera eramateko; Gazan elkartasun proiektuak bultzatzeko; eta Palestina leku guztietan ikusgarritzeko.

Helburu horiekin elkartasun mahaia egongo da frontoiaren inguruan (osteguna, otsailak 29, 18:30-20:00; ostirala, martxoak 1, 18:30-20:00; larunbata, martxoak 2, 12:30-14:00). Bertan, salgai egongo dira Palestinako banderak balkoieta jartzeko. Elkartasun kutxa ere izango da, goian aipatutako helburuetarako dirua biltzeko.

Martxoaren 2an, "2 ordu Palestinarekin" elkarretaratzea izango da (12:00-14:00) Mikel Laboa Plazan, herriko hainbat talderen eskutik.

SOS Gaza!!

Palestina askatu!!".

Mozioa

Egunotan egokituko da, gainera, otsailari dagokion osoko bilkura, hilaren 29an hain zuzen. Udalak aste hasieran jakinarazi zuen zer gai hartuko dituzten ahotan udal ordezkariak. Haietako bat hain zuzen, Palestinari lotutako mozioa izango da, EHBilduren udal gobernu taldeak berak aurkeztuko duena. Udalak aurreko leherotan aipatu eta asteburuan egingo diren elkartasun ekimenekin bat egitea proposatzen du. Horrez gain, beste mozio bat ere bozkatuko dute; ate joka dugun Martxoaren 8ari lotutakoa.

Horrez gain, hirigintza arloari lotutako beste bi hizpide ere izango dituzte: Orbeldiko presa eta Txokoaldeko trenbideko lanak. Eta kontu gehiago ere bai; esaterako, aurtengorako taxi zerbitzuaren tarifak edota udal lanpostuak eta lanpostuoi lotutako soldatak ere ahotan hartuko dituzte.



Mattin komikigilea, 'Hona bostekoa' erakusketaren irekiera ekitaldian.

'Handantza' sormen lanaren aurkezpen ekitaldia

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoan sortutako "Hona bostekoa" komiki bildumaren erakusketa zabaldu dute Sutegin. Irekiera ekitaldian, Mattin komikigileak parte hartu zuen "Handantza" komikiari buruzko azalpenak emateko. Bost komikien erakusketa ikusgai izango da martxoaren 1a bitarte Sutegiko Erakusketa Aretoan.



'Toto' antzezlan, larunbat iluntzean Sutegiko auditorioan.

'Toto', bikote baten eta euren txakurraren bueltan osatutako tragikomedia

Mafalda Bellidoren 'Chucho' antzezlanean oinarritutako "Toto" antzezlan eskaini zuten larunbat iluntzean NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan. Agurtzanek (Maitane) eta Joseluk (Jose Luis) Toto txakurtxoaren kustodia partekatzen duen bikoteak txakurra galdu, eta testuinguru horretan, tragikomedia bikaina osatu zuten aktoreek ehun bat herritarren aurrean.



Usurbilgo ohiko bisita egin eta gero, Chillida Lekura jo zuten.

Zumeta eta Chillida batu dituen ekimenak arrakasta handia izan du

Aurreko asteburuko planak jende askoren arreta piztu zuen. Martxoaren 23an errepikatuko dute bisita bikoitzaren formula. Chillida jaio zeneko mendeurrena eta Zumetaren frontoi atzeko muralaren 50. urtemuga uztartuko dituen bisita gidatuen egitasmoa aurkeztu eta gutxira agortu ziren sarrerak.



'Etxe bat', Yolanda Arrieta eta Peru Galbeteren ikuskizun berria.

'Etxe bat' errezitaldiarekin amaitu da aurtengo NOAUA! Kulturaldia

Yolanda Arrietaren hausnarketa poetiko bat dago 'Etxe bat' errezitaldi musikatuaren oinarrian. Oholtza biluzian, kandela gutxi batzuk. Maindireekin eta maindireetan idatzitako mezuakin atondu zuen aretoa, Peru Galbetez neurrira egindako doinuak aletzen zituen bitartean.



Udalak, Kafe Tertulia taldeak eta Emakumeen Etxeko talde sustatzaileak elkarlanean osatu dute Martxoaren 8ko egitaraua.

Aldarrikapenek eta ospakizunek bat egingo dute martxoaren 8an

Martxoaren 8rako Emakumeen Etxeko II. asanblada, elkarretaratzea eta pikoteo musikatua iragarri dituzte. Pikoteorako sarrerak dagoeneko salgai daude Aitzagan, Artzabalen eta Txirristran.

Kafe Tertulia: "Guk ez dugu sistema hau zainduko"

Herriko neska gazteen bilgune Kafe Tertuliak bi ideia nagusi plazaratu ditu. Batetik, Martxoaren 8ak aldarrikapen egun izaten jarraitzearen garrantzia nabarmendu du, eta deialdi feministetara gerturatzeko gonbita egin. "Dei berezia egin nahi diogu cis-heteropatriarkatuagandik zapaldua den baina Martxoaren 8a bere sentitzen ez duen orori: zeharka zein zuzenean jasaten dituzten zapalkuntzak azter ditzaten eta duten garrantzia eman diezaieten. Batzen gaituen problematikak eragindako ezinegona kolektibizatze tresna segurua eta

baliogarria da borroka feminista".

Bestetik, 2023ko azaroko greba orokorreko leloa berreskuratu du: "Aurtengo Martxoaren 8 honetan inoiz baino ozenago aldarrikatuko dugu guk ez dugula sistema hau zainduko". Gogoratu dutenez, badira sei urte mugimendu feministak zaintzaren auzia "agenda politikoa-aren erdigunean" jarri zuenetik, 2018ko eta 2019ko Martxoaren 8ko grebetatik hasita. 2020an, konfinamendu betean, Bizitzak Erdigunean Koordinadora Feminista jarri zen martxan zaintzaren auziari heltzeko, eta, azkenik, 2023ko udazkenean Euskal

Herriko Mugimendu Feministak deitutako lehen greba feminista orokorra, *Denon bizitzak erdigunean* lelopean.

Nabarmendu dutenez, feminista usurbildar ugari

"SEXU EDO GENEROAGATIKO DESBERDINTASUNAK GIZARTE DESOREKAREN ARRAZOI HANDIENETAKO BAT IZATEN JARRAITZEN DU"

egin zuten bat greba egunarekin, zaintza sistema iraultzeko borrokarekin bat egiteko: "Herriarren aldetik lortutako parte-hartze eta inplikazio mailari esker, zaintzaren auzia baloreen jarri eta borroka indartu genuen". Egund hartan, aldarrikapen zehatzak plazaratzeaz gain, epe motz, ertain eta luzeko dinamika batez hitz egin zen: "Herri Akordio bat erdieste-ko beharra mahai gaineratu zen".

Usurbilgo Udala: "Pertsona ardatz izango duen eredu komunitarioa ari gara eraikitzen"

Udalaren aldetik, Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak azaldu duenez, Herri Akordioa lortzeko ahaleginak aukera eman dezake, Usurbil herri zaintzailea izateko helburua ardatz hartuta, herriaren modu kolektiboan eraikitzen ari diren zaintza ekosistema indartzeko. Zaintza eredu berriaren muina nabarmendu du, labur gogoratuz: "Pertsona ardatz izango duen eredu komunitarioa ari gara eraikitzen. Pertsona bakoitzaren behar eta nahiei egokitutako bizi-planak eskaini nahi ditugu. Zaintza behar duen pertsonak komunitateko kide izateko espazioa eta aukera izan behar du: eta ez zainduak soilik, baita horren zaintzailak ere".

Ohartarazi duenez, herri zaintzailea izateak herritar guztiak interpelatzen ditu: "Zaintza herria egituratzen duen aldagaia izatea nahi dugu, eta horrek zaintza zeharlerrotasunez lantzea eskatzen digu, bai udaletik, bai komunitatetik". Hain justu, komunitatearen lantaldea horretan ari dela lanean nabarmendu du, "merkatariarekin, auzo elkarteekin, jubilatuekin, hezkuntzan eta abar". Alkatearen esanetan, Emakumeen Etxeak horretan guztian sakontzen jarraitzeko aukera emango du.

Emakumeon Etxea: "Beharrezkoa da ahalduntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea"

Usurbilgo Emakumeon Etxeko talde sustatzaileko kideek nabarmendu dutenez, Emakumeon Etxea herriko emakumeentzako erreferentzia-ko izango den espazio izatea nahi dute, baina ez dute topagune huts izan dadin nahi: "Sareak sortzeko, aholkularitza jasotzeko, indarkeria matxistarik gabeko bizikidetzak sustatzeko, emakumeen ahalduntzea, parte-hartzea eta presentzia eta ikusgarritasuna lantzeko, eztabaida, hausnarketa eta aldaketak ikuspegi feministatik pizteko gunea izatea nahi dugu".

Izan ere, ohartarazi dutenez, "sexu edo generoagatiko desberdintasunak gizarte desorekaren arrazoi handienetako bat izaten du, gaur egun ere;



Potxoenean eman zuten aurtengo egitarauaren berri.

ez bakarrik lanaren eta ekonomia-aren esparruan, baita komunitatearen eraikuntzan ere: ezin da komunitate bat eraiki, komunitate horren zati batek ez baditu eskubide eta aukera berberak komunitate horren gizarte bizitzan parte hartzeko. Eta gaur-gaurkoz, emakumeon gainkargak, zain-

tzarekin lotutakoak nagusiki, herritartasun osoa egikaritzea mugatzen digu, aurrez esan den bezala". Horregatik, hain justu, da beharrezkoa eremu propioa eta ahalduntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea: "Emakumeon Etxeak horretarako gune izan nahi du".

Martxoaren 8ko egitaraua

- 18:00. Emakumeon Etxeko II. Asanblada egingo da Potxoenean.
- Ondoren, elkarretaratzea, Mikel Laboa plazan.
- 21:00. Pikoteo musikatua, Artzabal jate txean. Sarrerak otsailaren 28an jarriko dituzte salgai, 10 euroan, Aitzagan, Txirristran eta Artzabalen.
- Antolatzaileak: Kafe Tertulia Usurbilgo talde feminista, Emakumeon Etxeko talde sustatzailea, Usurbilgo Udala.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2024

Martxoak 8, OSTIRALA

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA

Josu Osa

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea



SARRERAK: aldez aurretik Alkartasun edo www.alkartasuna.eus

Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira!





Sindikatuak martxoaren 1erako deitu duten mobilizazioko traktore zutabeetako baten geltokia izango da Urbil.

Traktoreak errepidera aterako dira berriz

Lehen sektorea babestu eta eguneroko lana erraztu beharra defendatzeko mobilizazio eguna deitu dute martxoaren lehenean. Goizean eskualde ezberdinetatik (tartean Urbiletik) abiatuko diren hiru traktore eta ibilgailu zutaberen bidez, protesta Batzar Nagusietaraino eramango dute.

Gipuzkoako baserritarrek, EHNE eta ENBA sindikatuak eta Baso Elkartek mobilizatzeko deia egin dute ostiralean, martxoaren lehenean. Traktoreak bidera ateratzeko deia egin dute, baserritarrek duela bi aste egin zuten moduan. Gipuzkoako hiru eskualdeetatik traktore eta ibilgailu zutabe bana bideratuko dute. Haietako batek udalerrri hau zeharkatuko du. Donostian elkartuko dira denak eta goiza Gipuzkoako Batzar Nagusietan amaituko dute ekitaldi batekin.

Sektorearen batasunari deia
"Martxoak 1, Gipuzkoako lurra esnatuko den eguna" izango dela iragarri dute Euskal Nekazarien Batasuna (ENBA) eta Gipuzkoako EHNE sindikatuak, Gipuzkoako Baso El-

kartereekin eta herrialde mailako baserritarrekin batera. Traktore eta ibilgailuak bidera aterako dituzte. Ostiral honetan, "lurraldeko nekazari, abeltzain eta baso jabe guztiak deitzen ditugu martxoaren 1eko mobilizazioan parte har dezaten", deitu dute.

Izan ere, deitzaileon esanetan, "gure lehen sektorea oso egoera larrian dago eta, honenbestez, ñabardurak alde batera utzita, behar-beharrezkoa da, lehen sektore osoa bat eginda agertzea, Gipuzkoako gizarteak gure aldarria entzun eta bereganatu dezan". Nabarmendu dutenez, lehen sektorearen batasuna lehentzi nahi dute, modu horretan, "indartsuagoak garelako".

Mobilizatzea deitu dute, "lurraldeko baserritarrek eta baserriko ogibidea babesteko

eta gure eguneroko lana erraztu beharra defendatzeko. Gipuzkoar guztiak egiten diegu deia, bere parte hartzearekin, baserriaren aldeko konpromezua azaldu dezaten".

"Lurra esnatuko den eguna"
Gogorarazi dutenez, "martxoak 1 izango da Gipuzkoako lurra esnatuko den eguna. Zure partehartzea nahi eta behar dugu, gonbidatua zaude, zu eta Gipuzkoako gizarte osoa".

**SINDIKATUAK:
"MARTXOAREN 1A
IZANGO DA
GIPUZKOAKO
LURRA ES NATUKO
DEN EGUNA"**

Egunotan, ostiraleko mobilizazioaren aurretik jakinarazi asmo dute deialdiari atxikimendua adierazi dioten "elkarte, eragile eta entitateen zerrenda".

Zutabeetako bat Usurbildik

Gipuzkoako lehen sektore osoa deitu dute martxoaren 1eko mobilizazioan parte hartzera. Eskualdez eskualde Donostiaraino traktore eta ibilgailuak bidera aterako dituzte. Hiru ilara edo zutabe osatuko dituzte eta haietako batek udalerrri hau zeharkatuko du. Izan ere, Urola Kostatik, Oriotik abiatuko dira hainbat traktore eta Urbilgo aparkalekura etorriko dira 9:45ean.

Beste zutabeetako batek Goierri eta Tolosaldea zeharkatuko ditu eta Andoaindik Donostiara helduko da. Azkena, Oarsoaldetik abiatuko da. Gero, denak Donostian elkartuko dira.

Batzar Nagusietara

Hiriburuko kaleak igaro ostean, Illunbetik gora Gipuzkoako Batzar Nagusien atarian elkartuko dira 12:00etan. Bertan, ordu erdi beranduago, ekitaldi batean manifestua irakurriko dute eta dokumentu hau gero erakunde horretan ordezkatuak dauden alderdi politikoetako kideei helaraziko diete.

Bertara joateko deia egin dute. "Batzar Nagusietan bertan egingo den elkarretaratzean ahalik eta jende gehien biltzea espero dugu eta honenbestez, ibilgailu ilaran parte hartuko ez duen jendea, Batzar Nagusietako elkarretaratzean parte hartzea deitzen dugu, bertan irakurri eta entregatuko baitzaie, Gipuzkoako lurraldean dauden alderdi politiko guztiak, gure artean adostutako dokumentua. Beraz, esan bezala, Gipuzkoako baserritar guztiak egiten diegu deia, nahiz nekazari, abeltzain zein basozaleak, izan, martxoaren 1eko mobilizazioan parte har dezaten".



"Etxean lau gauzatxo egiten ikasteko ikastaro bat da", Izaskun Gurrutxaga hezitzaileak adierazi digunez.

"Praktikoa egingo dugu ikastaroa, beldurra kentzeko asmoz"

IZASKUN GURRUTXAGA HEZITZAILEA

Jabetze Eskolak etxeko konponketak egiteko ikastaroa antolatu du. Astelehenetan izango da, Atallu industriagunean, martxoaren 11tik maiatzaren 13ra bitarte, 17:00etatik 19:00etara.

Etxeko konponketak egiteko ikastaroa iragarri duzue. Orokorrean, emakumeek sentitzen dute konponketa txikiak egiteko oinarritzko ezagutzarik ez dutela?

Lehen ikastaroa duela urte batzuk eman nuen Hernaniko Berdintasun Sailaren proposamenaren ondotik. Garai batean, lanak oso banatuta zeuden generoaren arabera. Gaur egun, hori galdu egin da eta emakumeok ez dakigu josten eta sukaldean, ez behintzat gure amonek bezala eta gizonek ere ez dakite taladroa erabiltzen. Emakume heldu askori interesatzen zaizkie kontuok, eta gazteei ere interesekoa zaie.

Bestela, ispilu bat erostean edo edozein altzari sinple montatzeko ez gara bakarrik moldatzen askotan. Gauzatxo txiki horiek landuko ditugu ikastaroan.

Zeintzuk dira ikastaroaren helburu nagusiak?

Erremintak erabiltzen ikastea da helburua eta beldurra kentzea taladroari eta bestelako konponketetan erabiltzen diren tresnei. Etxean lau gauzatxo egiten ikasteko ikastaro bat da. Ikastaro laburra da eta ikasi ere ez dugu gehiegi ikasiko, baina zertxobait moldatzen saiatuko gara. Oso oinarritzko kontuak izango dira.

Denetarikoa konponketak egiten ikasteko balioko duela jakinarazi duzue: entxufeak konpontzea, iturriak ura galtzen duenean zer egin, apalak jartzea, paretak lisatzea edo pintatzea. Saio bakoitza profesional ezberdin batek emango du edo zu zeu arduratuko zara ikastaroa osorik eskaintzeaz?

"ETXEKO KONPONKETA ERREMINTEI BELDURRA KENTZEA DA HELBURUA"

Nik neuk emango dut dena. Oso-oso oinarritzko kontuak erakutsiko ditut. Konponketa lan zabalagoak egiteko ofizio konkretu horiek egiten dituztenei deitu beharko diegu ikastaroa eginda ere. Ofizio horiek ere ez dira errazak eta ikastaroan ez dugu elektrizitatean edo iturgintzan espezializaziorik lortuko, ezta gutxiagorik ere. Nik neuk lanean ikasi nituen kontu hauek. Gauza askotan egin dut lan, ofizioei laguntzen. Bikotea iturgina dut eta harekin obra batzuk egin ditut. Bertikaletan ere lan egin dut sokekin. Usurbilen pintura ikastaro bat jaso nuen eta Udalak kontratatuta udaletxea, eskola eta frontoia margotu genituen. Hilabete batzuk pasa nituen horretan eta neure kabuz ere aritu naiz pintore lan batzuk egiten. 8 saiotan saiatuko naiz dakidan horretatik zerbait eskaintzen. Taladroa denok daukagu etxean, baina erabiltzen jakin ez. Nolako brokak existitzen diren ikasiko dugu eta nola aukeratu kasuaren arabera, eta hori guztia praktikan jarri. Modu praktikoan egingo dugu ikastaroa, beldurra kentzeko asmoz. Eginez ikasten da, azken finean. Ikastaroa laburra denez, bi zatitan banatzen ari naiz. Lehen zati horretan, egurraren moztu eta apalak montatzen ikasiko dugu. Prozesu horretan, taladroarekin sartuko gara eta gauza batetik bestera erreminta batzuk ezagutuko ditugu, eta pintatu ere egingo dugu. Ondoren, elektrizitate eta iturgintza etorriko lirateke, baina normalean ez du denbora ematen horretan aritzeko. Bigarren ikastaro bat egingo dugu pentsatzen ari naiz gai horietan sakontzeko.

Izen ematearen nondik norakoak gogora ekar ditzagun.

Izen-ematea jada irekita dago eta martxoaren 8a izango da azken eguna: parekidetasuna@usurbil.eus helbidera idatzita edo 943 37 19 51 telefonora deituta.



Mikel Rezola Garciak irabazi zuen iazko literatura lehiaketa, "Ledezek larrua jo nahi du" izeneko ipuinarekin.

"Ledezek larrua jo nahi du"

2. Etumeta Literatura Lehiaketa martxan da. Idatziak aurkezteko epea apirilean amaituko da. Orriotan, iazko lan saritua jaso dugu: Mikel Rezola Garciak idatzitako 'Ledezek larrua jo nahi du' ipuin laburra.

Ledez ipurtargiak Drakula irakurtzen du gauero. Iluntasunean ere argia ikusi daitekeela baieztatzen dio Bram Stokerrek, elur gainean beti dagoenaren antzerakoa.

Negua urrun geratzen zaio, ordea, udarako bero sargorienean. Aspaldiko urteetan ez du elurrik ikusi, gainera.

Auskalo zenbat denbora daraman zulo ezkutuan. Zertarako irten? Zurrutari ematea pentsatu izan du inoiz, baina nahiago du irakurri.

Eleberriak izan ohi ditu esku artean. Gauzez gauekoa, baina egunez egunekoak. Aspaldi idatzitakoak ditu gustuko, edo hobeki esateko, berriki idatzitakoak ditu

gorroto. Biosfera askotari-koagoa zen garaietako idazleak hautatzen ditu. Xomorro txiki bat besterik ez zenezan, bai, orduan irakurri izan zituen eleberri garaikideak ere. Itxaropena piztuta mantentzen zuen Norena da basoa? irakurritan, baina jada ez du horretarako animorik.

Literaturagatik ez balitz gizakiak gorrotoko lituzkeela badaki. Konturatzen da Mark Twain ere espezie horretakoa dela, eta eskerrak! Bestela, haiek kakarraldoak nola, zapalduko lituzke berak ere gizakiak. Sekulako sarraskia burutuko luke. Edozein hiri edo nekazari eremutan haiek egiten dutenaren antzera.

Baina ez, odola odol truk leloa ez du atsegin. Etikak ez dio horrelakorik egiten uzten, eta, gainera, ez du gizaki itxura hartu nahi. Kakarraldobati gertatu omen zitzaion hori inoiz, eta sekulako amesgaiztoa bizi izan omen zuen. Ez dago beldurrezko generoan hark bizitakora hurbil gaitzakeen kontaktuzunik. Ezta egongo ere.

Iluntasuna aspaldi bukatu zen, gainera. Gizakien artean argitasuna da nagusi. Itzalak ere ez du lekuri haien artean. Ez dago hegazti errarientzako pausalekurik. Izarrak jada ez daude haiekin. Ilargia ere lapurtu nahi diete, baina ez dira konturatu ere egiten. Ezkutuan musukatzeke zituzten lekuak kameraz zelatatutako gune bihurtu dituzte, eta, jada, inor ez da ipurtargiez oroitzen.

Hala ere, Ledezek bere zuloan jarraitzen du, egunen batean porlanez estalita bukatu arte, edo nork daki, kuriositatea galdu ez duen haurren batek topatu lezake, agian, etxera eraman, zer den aztertu, eta zorte pixka batekin, helduaroan liburu bat idatzi, desagertutako espezieei buruz idazten diren horietakoa. Helduen gauzak.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
· eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

→ Ledezek atsegin di-tuenak, alabaina, gizakiek ipurtargiak maite zituzten garaietan idatzitakoak dira. Egon al liteke, oraindik, horiek irakurtzen dituen pertsonarik? Agian, ordu txikietan, pertsiana guztiz jaitsita, manten azpian ezkutatuta eta linterna piztuta begiak gastatzen ari den inor egon liteke oraindik, baina berak ez du ezagutzen. Sare sozialetan ez dago horrelakoentzat lekurik.

Eta bera ez da zulotik ateratzen. Bere espeziekoentzat ez dago oraindik. Noizean behin, gizaki ipurtargizaleen iraultza batekin egiten du amets, bandera beltzak airean, tira-txinak eskuetan, farolei harriak jaurtiz, gauari bizitza emanez. Baina ez zaizkio horrelako ametsak atsegin. Gazte garaietakoak, bai, haiek bai zoragarriak! Orduan, eme ederrekin egiten zuen amets, baina jada ez du haien distira gogoratzen, eta ezin bizipen gozorik amestu.

Iluntasunik gabe, ezin argitasunik antzeman, eta Ledezek ezin du larrua jo. Denbora asko da, jada, azkenekotik. Ipurtargien egoera halakoa da. Bere espezieko gainerakoak ere berdind daude: ez dago haientzat etorkizunik.

Ala bai? B&B bikotea konspiratzen dabilela entzun du, halabeharrez; ezkutuko

"MIKEL LABOAREN 'HAIZE HEGOA' ABESTUZ ITZULI DA BERE ZULORA, POZEZ ZORATZEN ITZULI ERE, ETA AMETS EDERRAK IZAN DITU ASPALDIKO PARTEZ"

irakurleen topaketak antolatzen hasi direla. Manta azpitik atera, eta elkarren berri izaten ari omen dira linternazaleak. Leolok izen bereko filmean bezala, kementa eta adorea eskatzen omen diete liburuei, beraien bizitzatik haratago ere bizitza gehiago dagoela esatea, jardutearen premia gogoraraztea.

Ilusioa piztu dio Ledezi B&B bikotearen ekimenak, eta bera ere bilkura horietara joango dela erabaki du. Hasieran, Sutegin izango direla pentsatu du, baina bertara hurbildu, eta sarre-rako atean itsatsita zegoen afixa irakurtzerakoan, hagin zaharraren azpian izango direla jakin du. Hagin zaharraren azpian! Pozez zoratzten jarri da ipurtargia. Ahaztua du non dagoen zuhaitz miretsia, baina izango du haren berri. Hori bai bilkurak egiteko leku egokia, bai horixe!

Laboaren 'Haize hegoa' abestuz itzuli da bere zulora, pozez zoratzten itzuli ere, eta amets ederrak izan ditu aspaldiko partez. Maitatua sentitu da, eta desiratua, sikiera, lo egon den bitartean, eta zorientasuna somatzen du zirrikituren batetik agertzen.

Hurrengo egunean, GAUA GAUEKOENTZAT! zioten grafitiak azaldu dira herriko kaxkoan. Eta baita:

IPURTARGIEK LARRUA JO NAHI DUTE! NORENA DA GAUA? MOZOLOEKERE BIZI BEHAR DUTE! DENOK GARA SAGUZARRAK!

GU ERE GALAXIAN GAUDE! MUSUKATZEKO TXOKO ILUNAK! ANDROMEDA ENTZUN, GOGOAN ZAITUGU! ILUNTASUNA, GURE ESKUBIDEA!

Baina ez, ez ditu Ledezek egin. Ipurtargiek ez dakite idazten.

II. Etumeta Literatura Lehiaketako oinarriak

Ipuin laburrak 650 hitz izango ditu gehienez ere. Lanak aurkezteko epea apirilaren 7an amaituko da.

Nori zuzendua

Usurbilen erroldatua egon edota Etumeta AEK euskaltegiaren matrikulatuak dauden 18 urtetik gorakoei (adin hau izatea, lanak bidaltzeko unean). Sorkuntza lanak izan beharreko ezaugarriak: ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez; Times New Roman letra idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin; gai librean idatziko dira; lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere; euskaraz idatziak behar dute.

Dokumentuak

Bi dokumentu bidaliko dira inaki-d@ae.eus helbidera. Honako hauek:

- dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarririk gabe, PDF formatuan. Artxi-boaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "IZENBURUA.PDF".
- dokumentua: parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxi-boaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".

Epeak

- Otsailak 12-apirilak 7: lanak bidaltzeko epea.
- Ekainak 5: sari banaketa. Bertan "gingo da irabazlea publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz". Irabazle bakarria egongo da, "eta gehienez ere bi aipamen; bakoitzari diru saria eta oroigarria emango zaizkio. Epaimahaiak sariren bat eman gabe

utzi dezake, merezitako lanik ez dagoela erabakiko balu". Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

Sariak

Txapelduna: 150 euroko baliodun saskia, Hurbilagoren eskutik. Aipamena: 70 euroko baliodun saskia, Hurbilagoren eskutik.

Epaimahaia

-Etumeta AEK euskaltegiak hautaturiko hiru kideek osatuko dute. "Haien erabakia aldaezina izango da", ohartarazi dute antolatzaileek. Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifikatu ez ditzaten, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

Oharrak

Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarririk onartuko. Parte hartzaileek onartzen dute euren lanak argitaratu ahal izatea NOAUA! aldizkarian eta Etumeta AEKren sare sozialetan. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne. Informazio gehiago: blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae

IRABAZLEAK 150 EUROKO BALIOA IZANGO DUEN SASKIA JASOKO DU HURBILAGOREN ESKUTIK



Usurbilgo Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, iragan astean Haranen egindako bisitan.

Kirol instalakuntzak berritzen segitzeko konpromisoa

Harane futbol zelai berritua bisitatzen izan ziren iragan astean, Usurbilgo Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak bat. Kirol instalakuntzak berritzen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.

Haraneko futbol zelaia berri-tu zuen iaz Usurbilgo Udalak; zelai artifiziala eta ateetako sareak. Guztira, 210.771,42 euroko inbertsioa bideratu zuen lanotara. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 75.998 euroko dirulaguntza jaso zuen egitasmo honetarako eta kopuru honekin inbertsioaren %36a finantzatu zuen. Berrikuntza lanok bideratzea ahalbidetu duten bi erakundeotako ordezkariak Haraneko berrikuntzak ikusten izan ziren iragan astean.

Obra garrantzitsutzat jo zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, "erabiltzaile asko dituelako. Futbol klubak indar handia du Usurbilen, talde eta erabiltzaile asko". Udal gobernu taldetik zehaztu zuten, 9-36 urte arteko 260 erabiltzaile inguru ditu

Haranek. Usurbil FTK, Uda-rrégi ikastolak, Zirimarak baliatzen dute eremu hau, Donosti Cup txapelketako neurketak ere bertan jokatzeko dira, baita futbol zarpiko ligaxkako partidak ere. Horregatik, kirol alorreko zinegotzi Xabat Belokik iragan asteko bisitan berri eman zuen moduan, "garrantzitsua iruditzen zitzaien espazio hau era duin batean berritzea". Sarri erabiltzen den zelaia da Haraneko eta berri beharra zegoela gaineratu zuen. "Fabrikatzaileen esanetan, 10-12 urte irauten dute futbol zelaiek, gurea hamazazpi urteetan ez da aldatu", berri eman zuen.

Foru Aldunditik jasotako laguntza nabarmendu zuen alkateak, instalakuntzok berritzeko duten plangintzarik gabe "nekezagoa litzateke-

lako udalontzat gisa honetako proiektuak aurrera eramatea". Haranen egin bezala, norabide berean, iragarri zuenez, "jarduera inbertsio plan bat osatzen ari gara ditugun kirol instalakuntzen mantentze eta hobekuntzarako eta gure herriko kirol jardueren eskaintza zabaltzeko". Hala, herritarren aldetik jasotako eskariei erantzunez, "skate parkea hobetzea eta handitzea dago asmoen artean. Bada indarra hartu duen eskari bat ere, padel pista bat egitea". Egitasmoak Legealdi Planean aurreikusitakoak dituztela berri eman zuen alkateak, "azken batean, kirola, ariketa fisikoa, bizitza osasungarriak sustatzea badelako gure helburua eta bide horretan jarraituko dugu".

Kirol Ekipamenduen Plana

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari Marta Pastorrek berri eman zuenez,

"GARRANTZITSUA IRUDITZEN ZITZAIGUN ESPAZIO HAU ERA DUIN BATEAN BERRITZEA"

1,435 milioi euro bideratu dituzte Buruntzaldeko kirol instalakuntzak berritzera; Haraneko aipatu lanok gain, Andoingo futbol zelaia, Lasarte-Oriako kiroldegia eta Astigarragakoa hobetzeko lanak bideratu dituzte. Baita antzeko lan gehiagotara Gipuzkoan barrena. Izan ere, 2023-25 urte tartarako Kirol Ekipamenduen Planaren baitan, 523.091 biztanle (gipuzkoarren %72,8) biltzen dituzten 35 udalerrietako kirol instalakuntzak hobetuko dituzte eta 8,18 milioi euro bideratuko dituzte horretara. Funtsezkotzat jotzen dute Aldunditik, "kirol ekipamenduen oinarriko sarea kontsolidatzea, lehentasuna emanez egungo kirol ekipamenduen osoko edo zati bateko birmoldaketari eta eraberritzeari, baita ordezkatu edo lekuz aldatzeari ere". Lanok egiteko eremuak hautatzerakoan, kontuan hartu dituzte "maila sozioekonomiko ahuleko inguruneak", 500 biztanleko behe-rako herriak izatea, eraginkortasun energetikoa nahiz irisgarritasuna sustatuko duten proiektuak izatea. Hauxe gain, kontuan hartu nahi izan dute ere, "instalazioetako eta inguruko segurtasuna, eskola kirol egokituko programa bat martxan izatea, herriko kirol eskaintzarako sarbidea izateko prezioa murriztea eta gurasoek bere seme-alabekin batera egin dezaketen kirolaren eskaintza egokitzea".

Plagintza horrekin, "gipuzkoarren kirola egiteko aukerak eta baldintzak" hobetu nahi dituzte, "lurralde orekaren alde" egitearekin batera. Hobekuntza lan hauek guztiak giltzarritzat jo zituen, "biztanleriak jarrera aktiboko ohiturak izan ditzan laguntzeko. Are gehiago, herri bakoitzaren beharretara egokitutako kirol-jarduerarako irisgarritasuna eskaintzea ere lortu nahi da". Horregatik, zioenez, "plan honek hirigintza aktiboaren ikuspegia jasotzen du".



Animaliak eta Landareak Babesteko Gipuzkoako Elkarteak laguntzeko informazio postua jarri zuten Mikel Laboa plazan.

Animaliak eta landareak babesteko elkartasun ekimena

Animaliak eta Landareak Babesteko Gipuzkoako Elkarteak laguntzeko proiektua landu dute Udarregi ikastolako DBH 2. mailako ikasleek.

Animaliak eta Landareak Babesteko Gipuzkoako Elkarteak laguntzeko asmoz, DBH2. mailako ikasleak materiala biltzen aritu ziren hilabete hasieran. Horren bueltan elkartasun proiektu bat garatu dute. Abiarazitako ekimenekin 300 euro eta hainbat material bideratu dituzte bertara. Proiektua aurkeztu, babeslekuari buruzko informazioa helarazi eta laguntza batzeko informazio postua ere jarri zuten otsailaren 22an, Mikel Laboa plazan.

Elkartearen funtzioa

Adoptatzen ez dituzten animaliak laguntzen ditu elkarte honek. "Haien zaintzaile izaten gara behin betiko adoptatuko dituen norbait bilatzen diegun arte". Elkarte hau laguntzeko bide ezberdinak dituzte; diru ekarpenak egin daitezke, animaliak adoptatu. Elkarteari buruzko informazio gehiago, protectoradegipuzkoa.com atarian jaso dezakezue.

Udarregi ikastolako DBH2. mailako ikasleek landu duten

proiektuaren berri eman diote NOAUA!ra helarazi duten testu honen bidez:

"Eskerrak eman nahi dizkizuegu"

Udarregi Ikastolako DBH2ko ikasleak gara eta ekimen berri bat jarri dugu martxan Animaliak eta Landareak Babesteko Gipuzkoako Elkarteari laguntzeko asmotan. Gure helburuak jendeak animaliak adoptatzea eta adoptatzen ez dituzten animaliei laguntzea izan dira hauentzat materiala bilduz.

**EKIMEN
EZBERDINEN
BITARTEZ, 300
EURO LORTU
DITUZTE HAINBAT
MATERIAL ETA
ELIKAGAI EZ GAIN**

Proiektu hau burutzeko dirua eta materiala lortzea ezinbestekoa izan da. Horretarako, zozketa-txartelak, infoguneak bezalako ekintzak gauzatu ditugu. Materiala biltzeko kaxak izan dira eskura Sutegin, Kiroldegian, BM eta Eroski supermerkatuetan eta Udarregi ikastolan eta Agerialde ikastolako eraikinean. Kaxa horiek urtarrilaren 25etik otsailaren 8ra arte egon dira aipatu ditugun guneeetan. Ekimen hauekin guztiakin 300 euro lortu ditugu hainbat material eta elikagaiez gain. Hau guztia elkarteari eman zaio, irudian ikus daitekeen moduan, eta animalien beharretarako erabiliko da.

Honetaz gain, otsailaren 22an mahai informatibo bat jarri genuen frontoi inguruan 10:30tik 12:15ra herritarrei babeslekuari buruzko informazioa zabaltzeko asmoz.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimen honetan parte hartu duzuen herritar guztiei zuzen eskuzabaltasunagatik, bai errifak erosterako orduan eta baita materiala ematerako orduan ere.

Gure ekimena amaitu bada ere, babeslekuari laguntza eskaintzeko beraien web orria bisitatu dezakezue (<https://www.protectoradegipuzkoa.com/>). Mila esker guztiagatik.

Udarregi ikastolako DBH2ko ikasleak.

Udarregiko jertseak eta kamisetak salgai

DBH4ko ikasleek ikasbidairako dirua lor dezaten, jertseak eta kamisetak sortu eta salduko dituzte. Neurri desberdinak egongo dira aukeran, helduenak zein haurrenak.

Jertseak:

- Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 15 euro.
- Helduak (XS, S, M, L, XL, XXL): 20 euro.

Kamisetak:

- Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 10 euro.
- Helduak (XS, S, M, L, XL): 10 euro.

Eskaera nola egin

Eskaerak egiteko, argazkiari lotuta datozen QR kodea erabili dezakezue.

Epea

DBH4ko ikasleek aditzaera eman dutenez, "eskaria eskaera kopuruaren arabera egingo da, beraz martxoaren 4aren aurretik abisatzea eskertuko genuke, inor kamiseta edo jertserik gabe gera ez dadin".



Eskaerak QR kodearen bidez egin daitezke.



'Ilargirantz' filma eskainiko dute arratsaldeko 17:00etan Sutegin.

Igandean, haurrentzako zinea euskaraz

Udalak eta Ziortza gazte elkarteak elkarrekin antolatutako proiektioan 'Ilargirantz' filma eskainiko dute.

Sinopsia: "Bahitutako bere arreba txiki Anne erreskatzeko, Peterrek bidaia magiko

bati ekin beharko dio lurralde misterioitsu batean barrena... ilargia! Ilargiko Gizon gaiztoak

bahitu du Anne, honek bere lagun kakarraldoari, Zoomzeman jaunari emaztea bilatzen laguntzen ari zitzaionean. Bere fantasiazko abenturan, Larre izartsuan lurreratuko da Peter, eta 'lo dagoen' Hareaztatzale jauna ezagutuko du. Bertan jakingo du Anne non dagoen aurkitzeko modu bakarra Gaueko Maitagarriaren afarira joatea dela, Hodeietako Jauregian. Baina hango mahaian ez dago guztientzako eserlekurik. Eta hala, Naturako bost espirituekin lehiatu beharko du: Erraldoi Ekaiztsua, Txinparta Sorgina, Henry Kazkabar, Robin Zaparrada eta Ama Antzigarra".

Sarrerak eskuragarri

Sarrerak ohi bezala, usurbil-kultura.eus plataforman eskuratu ahalko dira aurrez, 3,20 euroren truke.

Aginagan abiatuko da 'Soinurbil'

Zumarte Musika Eskolak antolatutako zikloa martxoaren 7an hasiko da, arratsaldeko 18:30ean Aginagako Eliza Zaharrean. Iaz egin zuten moduan, Orbeldirekin lankidetzan emanaldi bateratua eskainiko dute Aginagako eliza zaharrean. Zumarteko talde instrumentalak herriko dantzariekin batera igoko dira oholtza gainera.

Soinurbil martxoaren 21era arte luzatuko da. Egitarauan ekitaldi hauek topatu ditugu: Jon Imanol Etxabe eta Alaitz Artolaren kantu-piano erre-zitala, Azpeitiko musika eskolaren kontzertua edota Landarbaso abesbatzaren saioa.

Futbol partidak

Martxoak 02, larunbata

Haranen

- 09:00 Infantil mutilak: -Usurbil FT -Ekintza DKE
- 12:00 Kadeteak: -Usurbil FT B -Ostadar SKT C
- 15:30 Preferente mutilak: -Usurbil FT -Sanpedrotarra FT
- 17:45 Kadete neskek: -Usurbil FT -Goierri Gorri

Haranetik kanpo

- 9:00 Infantil mutilak, Berion: -Santo Tomas Lizeoa B -Usurbil FT B
- 9:00 Infantil neskek, Berion: -Santo Tomas Lizeoa KE -Usurbil FT

• 09:30 Kadeteak, Asti Txikin:

- Zarautz KE C
- Usurbil FT
- 17:45 Jubenilak, Astigarragan: -Amara Berri KE -Usurbil FT B
- 18:00 Jubenil preferenteak, Hondarribian: -Hondarribia FE B -Usurbil FT
- 19:30 Erregionalak, Martutenen: -Amara Berri KE B -Usurbil FT B

Martxoak 03, igandea

Haranen

- 10:30 Kadete neskek, Berion: -Antigua Luberri BGEKE -Usurbil FT B

Eskubaloit partidak

Martxoak 02, larunbata

- 10:00 Infantil neskek: -Usurbil KE A -Urola Goierri Bus
- 11:30 Jubenil neskek: -Usurbil KE -Legazpi
- 16:00 Kadete neskek: -Usurbil KE -Aloñamendi
- 17:30 Senior neskek: -Urbil Usurbil KE -Tolosa
- 19:30 Kadete mutilak: -Usurbil KE -Zarautz Eskubaloia

Errifa zozketa

Usurbil Kirol Elkartek hilabete honetan eginiko errifa zozketan, hauxe izan da zenbaki saritua: 0151.

Pilota partidak

Martxoak 01, ostirala

- 17:45 Usurbilgo frontoian: Kadeteak 3. Mailan (binaka) -Pagazpe (Indakoetxea-Jauregi) -Atxurbide

Infantilak 3. Mailan (binaka):

- Pagazpe
- Atxurbide

Kadeteak 1. Mailan (binaka):

- Pagazpe (Alejo-Pagola)
- Behar Zana 2

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Parti
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaeren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna

aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurlaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nitzuke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrek zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. 676584506.

BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu honako telefono zenbakira: 607 168 352.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarkea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 29	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 03	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 04	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteartea, 05	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteazkena, 06	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Osteguna, 07	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 09	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Laia! Zenbat egun falta dira martxoaren 1a izateko? Eguna iristeko irrikitan zaudete, eta prest izango dugu zuretzat bizkotxo!! Muxu ERRALDOI bat zuretzat!!



Zorionak Nahia! Oso ondo pasa zure urtebetetzearen egunean! Etxekoan partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitze gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 02

USURBIL Gazte Eguna

11:30 (D)Oka jolasa. Ondoren, marianitada. 18:30 Aztarrikant. 20:30 Gazte afaria. Txartelak Txirristran eta Aitzagan salgai otsailaren 27ra arte, 12 eurotan. 00:00 Kontzertuak: Zapparra, Xsakara, Dj Fresa Morango. Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.
Egun osoko jarduera.

ASTELEHENA 04

USURBIL Odol-ematea

Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela hona: 943 007 884. 16:30-20:10 Udarregi Ikastolan.

USURBIL Ameli ipuin kontalaria

Ameli ipuin kontalariaren ipuin kontaketa saioa. 4 eta 5 urteko haurrentzat. 18:00 Sutegin.

ASTEARTEA 05

USURBIL Idazketa tailerra

Bideratzailea: Yolanda Arrieta. 16 urtetik gorakoei zuzendua. Izen ematea, udal liburutegian bertan. Iraupena: ordu eta erdi. Antolatzaileak: Sutegi udal liburutegia eta Etumeta AEK euskaltegia. 18:30 Sutegin.



Afarirako txartelak otsailaren 27ra arte eskura zitezkeen.

Gazte Eguna larunbat honetan ospatuko da

Aztarrika Gazte Asanbladak II. Gazte Eguna ospatuko du larunbat honetan, "Herri bizi bati deika, egin Aztarrika" aldarripean.

Goiz partean "hausnartzeko espazioa sortu nahi dugu, oka-jolas baten bitartez", Aztarrikakoek azaldu dutenez. "Betiko mahainguru formatutikat, esperientziak eta iritziak beste modu batera ere partekatu daitezke, eta horretara goaz".

II. Gazte Eguna

Martxoak 2, larunbata

- 11:30 (D)Oka jolasa.
- Ondoren, marianitada.
- 18:30 Aztarrikant.
- 20:30 Gazte afaria (txartelak otsailaren 27ra arte eskura zitezkeen).
- 00:00 Kontzertuak: Zapparra, Xsakara, Dj Fresa Morango.
- Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.

Astlehenean, odol-ematea

Martxoaren 4an astlehena, arratsaldeko 16:30etik 20:10ak arte Udarregi ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

Sutegi udal liburutegiko agenda

Sutegi udal liburutegian ekitaldi ugari antolatu dituzte datozen egunetarako.

Martxoak 4, astlehena

- 18:00 Ameli ipuin kontalariaren ipuin kontaketa saioa.
- Nori zuzendua: 4 eta 5 urteko haurrentzat.
- Iraupena: 45 m.

Martxoak 5, asteartea

- 18:30etan hasita, idazketa tailerra Yolanda Arrietarekin.
- Nori zuzendua: 16 urtetik gorakoentzat. Izen ematea: Liburutegian bertan.
- Iraupena: ordu eta erdi.
- Antolatzaileak: Etumeta Euskaltegiarekin elkarlanean antolatua.

Martxoak 20, asteazkena

- 19:00 Liburu aurkezpen-solasaldia: Iñaki Zabaletaren "Nazioa eta hizkuntza, Humboldttekin solasean".
- Iraupena: ordu eta erdi.
- Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com




ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

